

2010eko abenduaren 21ean, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzorde Zuzentzaileak izandako batzarrean, besteak beste, ondokoa erabagi dala:

## **ZAHARREN EGOITZAKO HARRERA ZERBITZUAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA ONARTZEA**

### **Xedea**

Zaharren Egoitzako harrera zerbitzuaren behin betiko esleipena onartzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2010eko azaroaren 4an, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia batu da Zaharren Egoitzako harrera zerbitzuaren esleipenerako proposamenak aztertzeko.

Bigarrena: "A" sobreetako dokumentazioa zuzen jasota gero, azaroaren 9an, kontratazio mahaia batu da "B" sobrea aztertzeko eta dokumentazio honen gaineko txostena egin da.

Hirugarrena: Azaroaren 17an, puntuazioei buruzko txostena onartu da eta azaroaren 24an behin behineko esleipena onartu dau batzorde zuzentzaileak.

Laugarrena: 15 egun egon da iragarkia publikatuta Bermeoko web orrian eta Lantegi Batuak Fundazioak behin betiko bermea jarri dau. Epe horretan alegaziorik egon ez dalez, esleipena behin betikoa egitea proposatzen da.

### **Argudioak**

Espedientea behar bezala izapidetu da

### **Erabagia**

Lehenengoa: Zaharren Egoitzako harrera zerbitzua behin betiko Lantegi batuak elkarteari esleitzea 39.122,00 eurogaitik (BEZ barik) lehenengo urterako. Kontratua lau urterako izango da.

Bigarrena: 10 eguneko epean zerbitzu kontratua sinatzea.

